

Hauteskunde lerrokatzeak: euskara eta boto abertzalea

Haritz Garmendia Iturria
Soziologian doktoregaia UPV/EHU

Pentsamendu modernoak dituen mugak ‘periferiako’ fenomenoak azaltzeko

Ikerketa guztiek dute oinarrian motibazioren bat. Nire kasuan, senak eraman ninduen doktorego tesia egitera euskararen eta boto abertzalearen arteko loturaren inguruan. Zuzendariak proposatu zidan gaia eta bi aldiz pentsatu eta gero baiezkoa eman nion. Lagun artean eta galdetzen zidatenean *zergatik hautatu duk ikerketa objektu hori, ez nuen jakiten goitik behera nola arrazoitu*. Alabaina, gauza bat argi nuen: sarri normaltasunez egiten ditugun ekintzen eta begi-bistakoa denaren atzean ezkututzen direla soziologian askatu gabe dauden korapilo potoloenak. Hain zuzen ere, horregatik nahi nuen ezagutu euskara eta boto abertzalearen arteko harremana, euskaldun gisa lotura hori normaltasunez bizi nuelako.

Ikergaiaren inguruan bilaketa bibliografikoa egitea izan zen egin nuen aurreneko gauza. Ikerlerro batzuetan hamarkada luzez dihardute euskal ikertzaileek lanean: historian, literaturan, soziolinguistikan, filosofian, hezkuntzan, antropologian... Ikerketa elektoralen alorrean, zoritxarrez, ikerketa solteak daude soilik. Ez dago euskal ikertzaileen artean ikertzaile-talderik urte luzez ikerketa elektoralak aztertzen aritu denik. Bai, ordea, erdal ikertzaileen artean; horretaz arduratzen dira hamaika erakunde eta ikertzaile. Hala, zuzendariaren eta inguruko laguntzarekin, baina pentsamenduz umezurtz, nire bidea egiten hasi nintzen. Hasteko, oinarrizko datu-baseetan arakatu nuen. Hitz-gakoak bilatzailean jarri eta zerrenda amaigabeak osatu nituen. Egia esateko, euskal ikertzaile gutxi agertzen ziren zerrenda horietan. Erdal autoreen artikulua ziren aipu gehien zituztenak. Esan ohi da gezur bat mila aldiz errepikatuta egia bihurtzen dela. Artikulu zientifikoen kasuan, berriz, autoreak kontsaktatzeko joera dago aipu kopuruaren arabera. Aitortzen dut niri ziria sartu zidatela. Akordatzerako, okerreko artzainaren artaldeari ari nintzen segika ustez pagotxa eskaintzen zuelakoan.

Ondorengo hilabeteetan egunak igaro nituen erdal autoreen artikulua irakurtzen. Ez nuke esango alferrikako jarduna izan zenik, aitzitik, aberasgarri suertatu baitzait gerora. Alabaina, denborarekin jabetu nintzen zerbait gaizki egiten ari nintzela. Irudipena nuen, euskararen eta boto abertzalearen arteko harremana esplikatzerakoan, desfasea zegoela akademian gehien errepikatzen diren teoriak proposatzen dituzten erreferentzia markoen eta nire bizipen propioek eskaintzen zidaten ikusmoldearen artean. Beste modu batera esanda, sentipena nuen teoria horien bidez errealitatea azaldu

beharrean, teoriak ezarritako kategorietara ari nintzela bihur-murrizten errealitatea. Ikusten nuen nire burua eta ingurunea ezagutzeko asmoarekin hasi nuela ikerketa, eta, bide horretatik, besteek gutaz esaten zutena barneratzen amaitu behar nuela. A ze ikaskuntza prozesua nirea!

Berrero ere irteerako puntura itzultzea erabaki nuen. Izan ere, ustezko teoria unibertsal horiek euskal kasura aplikatzerakoan, zerbaitek huts egiten zuten. Ez nekien zer, baina zerbaite falta zen: ingurune partikular eta konkretu batetik pentsatzea, agian? Nondik ari ziren pentsatzen autore ospetsu horiek? Neutroa eta abstraktua zen euren pentsamendua? Senak iradokitzen zidan posible zela arazoaren muina erdal autore horiek proposatutako teorien premisetan eta ikerketa objektua zedarritzeko hobesten zituzten irizpideetan egotea.

Garai hartan zortea izan nuen zalantza horiek hainbat pertsonarekin partekatzeke. Aitortu behar dut gerora goian aipatutako korapiloari ustez aterabidea aurkitu badiot bere garaian pertsona horiek emandako bultzada eta laguntzari esker izan dela. Harrezkeroztik bidelagun ditudan lagun horiek gomendatu zidaten irakurtzea 56ko belaunaldiaren eta beren ondorengoen lanak. Horretan ari nintzela ezagutu nituen Joxe Azurmendiren testuak. Hasieran duda egin nuen hasi berri nuen bigarren bidaia hau zuzena ote zen. Nire buruari behin baino gehiagotan galdetu nion honakoa: zergatik ari haiz ikastolen fenomeno (Iztueta 2000), Marx eta nazioa (Garate 1972), euskararen historia soziala (Intxausti 1990), Txillardegia eta nor-tasuna (Aizpuru 2015), Orixeren gorabeherak (Azurmendi 1976, 1977), euskal kultura eta cultura vascaren arteko ezberdintasunak (Iztueta 2015) edota antzeko beste hainbat lan irakurtzen, baldin eta ikerketa elektoralen barrutian kokatzen baduk hire ikerketa objektua? Harrigarriena zen diziplina ezberdinetako lan horiek guztiak baliagarri zitzaizkidalan nire zalantzak argitzeko. Erantzuna begi-bistan nuen: esku artean nuen arazoa ez zen mugatzen ikerketa elektoraletara; aitzitik, diziplina ezberdinak ukitzen zituen eta, ondorioz, soluzioak ikuspegi kokatu eta integrala eskatzen zuten.

Errenazimentu euskarazkoa helburu: gure buruaren aurkikuntza eta libertatea

Nazionalismo etnikoaren ideiaz baliatzen da akademian hegemoniko den hurbilpen modernista estatu gabeko nazioetan gertatzen diren lerrokatze linguistiko elektoralak azaltzeko (Lipset eta Rokkan 1967). Ikertzaileek ia aho batez onartzen duten marko teorikoari nik lan honetan *kontakizun modernista* deitzen diot. Autoreen arteko ñabardurak gorabehera, honakoa da kontakizunaren kronologia eta mezua: bat, 1789ko Frantziako Iraultzak nazio-estatuaren aroari hasiera ematen dio; bi, nazio-estatuaren egikaritzeak gatazkak eragiten ditu zentro-periferia ardatzean ezaugarri historiko bereziak dituzten 'erregioetan'; hiru, zentro-periferia ardatzaren logikan agertzen dira lehen nazionalismo etnikoak; lau, mugimendu horien inguruan artikulatzen dira alderdi nazionalistak; eta bost, alderdi nazionalista horiek joera handiagoa izango dute komunitate etniko-autoktonoaren babes elektoralak jasotzeko.

Nazionalismo etnikoa estatuaren aurkako erreakzio gisa ulertzen du akademian hegemoniko den kontakizun modernistak. Azken horrentzat, estatua da ikerketa

objektua zedarritzeko abiapuntua eta bere deribatuak dira gainerako ‘erregioak’, hots, euskal lurraldeak. Planteamendu horrek goitik behera baldintzatzen du ikerketa. Begirada horretatik, adibidez, ‘Frantzia hegoaldeko’ gertakaria da Ipar Euskal Herrian gertatzen den lerrokatze linguistiko elektorala. Hego Euskal Herriko lerrokatzea, berriz, ‘Espainia iparraldeko’ fenomeno gisa kategorizatzen da. Azken hori bi barrutitan banatzen da, gainera: Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) eta Nafarroako Foru Erkidegoa (NFE). Ikusten den moduan, euskaldunen iruditeriak talka egiten du kontakizun modernistak proposatzen duen erreferentzia sistemarekin. Euskaldunentzat hegoa dena espainiarrentzat *norte* da, eta euskaldunentzat iparra dena frantziarrentzat *sud*. Unibertsal, aurrerakoi eta neutro gisa saltzen dizkiguten betaurreko horietatik abiatuz gero, behartuta gaude euskal lerrokatze linguistiko elektorala estatuaren aurkako erreakzio periferiko moduan ulertzera eta gertakariaren zentzua erdal zentroetatik interpretatzera, alegia, Madrildik eta Paristik.

Bi sentipen kontrajarri izan nituen aurreneko aldiz lerrokatze linguistiko elektoraldaren inguruko azalpen modernista irakurri nuenean. Alde batetik, poza sentitu nuen hizkuntzaren eta botoaren arteko harremana esplikatzen zuen teoria aurkitu nuelako. Bestalde, nahigabea eta ezintasuna sentitu nituen. Izan ere, kontakizun horrek bere horretan ez zuen balio euskal kasua azaltzeko. Behin puntu horretara iritsita, bi aukera nituen: kontakizun modernista nire egin eta ikerketarekin jarraitzea edota ikerketa bertan behera uztea. Aurreneko aukera pozoituta zegoen; bigarrena, aldiz, tamalgarria zen. Denborarekin jabetu nintzen hirugarren aukera egon zitekeela: kontakizun modernista deseraiki eta euskal kasura egokitzen zen kontakizun berria eraikitzea.

Alde horretatik, kontakizun modernistaren helduleku nagusia nazionalismo etnikoaren ideia zela ikusita, berori deseraiki beharra ikusi nuen aurrena. Ez nuen lan handirik izan horretan. Izan ere, Azurmendik aspaldi argitu zituen auzi horren inguruan sekretu guztiak.

Perspektibaren diferentzia bai, baina ez dago nazio kulturalaren eta politikoaren oposizioirik; ez dago politikoa ez den nazio kulturalik. Nazio kulturala beti da nolabait politikoa, eta kasu batzuetan larriki politiko bilakatzen da. (Azurmendi 2017: 19)

Azurmendi (*ibid.*) nazioaren ideia klasikoaz baliatzen da nazioaren gaineko dikotomia kultural/politikoaren gezurtatu eta gainditzeko. Horretan dabilela, historiaren barrunbeak arakatzeko ditu. Bere idatzietan esplikatzen saiatzen da zergatik euskaldunak nazio etnikotzat izendatzen gaituzten eta zergatik kategorizatzen dituzten euren buruak nazio politiko moduan espainiarrek eta frantziarrek. *Espainolak eta euskaldunak* (2000 [1992]) liburuan, esaterako, Errenazimentuan jartzen du arreta. Azurmendiren arabera, garai historiko horretan daude gakoak gaur egun euskal nazioak dituen ajeak ulertzeko. Bere hipotesi nagusia da euskaldunak «modernia propiorik» izan ez zuten nazio zahar bat direla.

Euskal Herria gaur kontzientziaren ospitale bat da. Gehienok erdi puskak gara: erdi euskaldun, hiru laurden euskaldun. Kaos horretatik zer irtengo duen, euskal nazio ala espainol azkenean erromanizatu, lanak eta borrokak esango du. [...] Euskal nazioa atomizaturik dago. Bildu egin

behar da. [...] Itzuli beharra daukagu atzera, izandu gabe geratu ginen Ernazimendu hartara: Euskararen Ernazimendura baino gehiago, Ernazimendu euskarazko batera. Gure buruaren aurkikuntza eta libertatera. (*Ibid.*: 580-581)

Azurmendiren (*ibid.*) arabera Aro Modernoa haustura humanistarekin hasten da eta estatu modernoaren sorrerarekin burutu. Prozesu horretan dio berebiziko garrantzia izan zutela nazio hizkuntzek. Izan ere, horiek izan ziren «kontzientzia sozial eta politikoko berrien oinarri trinkoenetako bat». Euskaldunen kasuan, «Ernazimendu euskarazkoa» izan bagenuen ere, urrun gelditu ginen beste nazio batzuk izan zuten Errenazimentutik. Bi estatu inperialisten erdian preso gelditu ginen euskaldunak, erditik puskatuta eta zati horietako bakoitza birrinduta. Euskal botere ekonomiko, politikoko eta sozialik gabe; erresistentzia, lana eta borroka izan da harrezkeroztik euskal kausara engaiatu diren herritarren patua. Baita euskal ikertzaileena ere. Nahi eta ezinaren historia da euskaldunena: XVI. mendean, Garibai eta Etxabe Gaztelako gorteei begira bizi ziren; XVII. mendean, elizgizonak ziren iparraldeko euskal pentsalari ia guztiak; XVIII. mendean, Larramendik euskara goستن zuen baina gaztelaniaz; XIX. mendean, ez ziren ados jartzen hiru, lau edo zazpi ziren probintzia euskaldunak; XX. mendean, Aitzol hil zuten eta Orixe erbesteratu; XXI. mendean, bere herrian arrotz izaten jarraitzen du euskal pentsalariak. Erbeste akademikoa sufritzea tokatzen zaio korronte hegemonikoa zalantzan jartzen duenari. Hori da euskal pentsamenduaren argazki gordina. Diziplina ezberdinei eragiten die, gainera. Ikerketa elektoralen arloan, esaterako, euskal pentsamenduak ez du lortu eskola propioa osatzea. Nahiago nuke konfundituta egotea, baina beldur naiz ez ote nagoen. Euskobarometroa eta antzeko erakundeen lanak ikusita, oraindik eta motibo gehiago daude aipatutakoa pentsatzeko.

«Iragan intelektual pobretik gatoz», dio Azurmendik. Pentsatzen jarrita, ez da gutxi gaur arte iraun izana. Horrek ez du esan nahi, ordea, «Madril eta Parisko maisuen lezio eta kritikoen onspenetik» zintzilik ibili behar dugunik aurrerantzean. Azurmendik azpimarratzen du «geure-geure mundu bat behar dugula» helburu bat eta bakarrarekin: geu izatea.

Orduan, Madril eta Parisen sukurtsal politikoak izan gura ez badugu, ezin gara sukurtsal mentalak izan. Gure arazoak geuk gure buruan sinesteko. Jakiteko badaukagula geure pentsamendu bat [...]. Eta gero, askatasuna beti kontzientziaren askapenetik hasten delako. Kontzientziaren askapena, berriz, ikasiz eta ikasiz burutzen da. Mundua geure esperientziaren begiekin ikusten ikasiz, eta arazoak geure buruekin pentsatuz, ez nondibait inposatu zitzaizkigun eskemekin eta dotrinekin. Ikasten duguna, gure herriarentzat ikasi beharko dugu (ez akademiarentzat soilik); pentsatzen duguna, geure jendearentzat pentsatu, ez itzulpenarentzat. Ez pentsatu esportaziorako pentsatzen edo idazten dugula. (Azurmendi 2017: 105-106)

Ikusten den moduan, Azurmendik lerroartean hiru eginkizun luzatzen dizkigu: bat; erdal pentsamendu hegemonikoa deseraikitzea; bi, euskal arazo konkretuak euskal pentsamendutik pentsatzea; eta hiru, euskal pentsamenduaren garapena nazio askapenaren koordinatuetan gauzatzea.

Gure mundua behar dugula esatetik harago, mundu hori eraikitzeko aurreneko urratsa zein den ere esaten du: irizpide berriak legitimatzen asmatzea euskal auzi

konkretuak euskal pentsamendutik aztertze. Horra Azurmendiren ideien ur-jauziak diziplina ezberdinetako euskal ikertzaileei luzatzen dien erronka.

Zientzia bakoitzak bere objektu propioa du, edo objektua begiesteko molde berekia. [...] De facto historiagintza zientifiko moderno kasik dena Estatuon perspektibatik eta horien zerbitzuan egin da, à la Hegel. [...] Estaturik gabeko nazioen perspektibatik begiratu nahi izanez gero, beste kriterio batzuk aplikatu beharko dira, berdin legitimoak – legitimatzen baldin badakigu. (Azurmendi 2018:77)

Hauteskunde-soziologia euskaldunentzat eta euskal betaurrekoetatik

Ikerketa elektoraletan modelo ezberdinak daude hautesleen portaera azaltzeko. Hurbilpen soziologikoaren funtsezko hipotesia da harremana dagoela hauteslearen ezaugarri sozialen eta portaera elektoralaren artean. Premisa horretan oinarritzen da lerrokatze elektoralen gaineko azalpena. Datuei erreparatuz gero, ukaezina da ugazabek eskuineko alderdiei bozkatzeko joera dutela. Beste horrenbeste esan daiteke komunitate kultural minorizatuen kasuan. Azken horiek joera handiagoa dute estatu gabeko alderdi nazionalistei bozkatzeko. Hurbilpen soziologikoarekin bat egin edo ez, aho batez onartzen da akademian hauteskundeetan lerrokatze elektoralak gertatzen direla. Puntu horretan guztiak ados daude. Eztabaida lerrokatze horiek interpretatzerakoan sortzen da.

Hurbilpen soziologikoaren arabera, alderdi sistemak eskaintzen du lerrokatze elektoralak ulertzeko gakoa. Alderdi politikoa da sistemaren oinarritzko elementua. Alderdi politikoen zeregin nagusia da gizarteko sektore ezberdinen interesak esfera politiko formalean ordezkatzea. Horregatik dira alderdi sistemak gizartean dauden interes eta gatazka nagusien ispilu. Hurbilpen soziologikoak aldarrikatzen duena da lerrokatze elektoralak ulertu nahi dituenak gizarteko gatazka eta interes horietan arakatu behar duela.


Lerrokatze elektoralez ari garenean, beraz, interesgarriena ez da aztertzea alderdi bakoitzak zenbat eserleku lortu duen edo zein den alderdiek gobernura iristeko duten aukera. Horrelako ikerketetan garrantzitsuena da ordezkari politikoak lortu duten alderdi horiek gizarteko zein gatazka-ardatzen inguruan artikulatu diren identifikatzea. Izan ere, alderdi sistemaren oinarrian dauden dibisio sozial eta gatazka politikoak dira lerrokatze elektoral nagusiak eragiten dituztenak. Behin puntu horretara iritsita, honako zalantza hau tokatzen da argitzea: zein dira euskal alderdi sistemaren oinarrian dauden gatazka-ardatz nagusiak? Ikertzaileak galdera horri ematen dion erantzunaren arabera izango da euskal lerrokatze linguistiko elektoralak hartzen duen zentzua.

Idatzi honetan ez naiz luzatuko azaltzen zein den espainiar nazionalismo hegemonikoak galdera horri ematen dion erantzuna eta justifikazioa. Horretaz beste lan batean arduratu ginen (Garmendia eta Urteaga 2019). Kasu honetan, espainiar pentsamendu hegemonikoak euskal alderdi sistemaren inguruan duen irudiaren gainean zenbait gogoeta egitera mugatuko naiz.

Euskobarometroa ikerketa-taldeko zuzendariak koordinatu eta CIS argitaletxeak argitaratutako *Las elecciones autonómicas en el País Vasco 1980-2012* (2016) liburuan,

esaterako, EAeko hauteskundeak bakarrik aztertzen dira. Liburuak ez du ia aipamenik egiten NFEko hauteskundeen inguruan. Ipar Euskal Herria, berriz, ez da existitzen. Are gehiago, Espainiako Estatutik ezartzen ditu ikerketa objektua zedarrizteko irizpideak. Hori gutxi ez balitz, liburu horren oinarritzeko premisa da bi direla EAeko alderdi sistema egituratzen duten gatazka-ardatzak: ezker/eskuina eta zentro (estatalista edo autonomista)/periferia (nazionalista). Ikusten den moduan, nazio etnikoaren ideian oinarritzen da EAeko alderdi sistemaren gaineko irudi hegemonikoa, zeinaren arabera EAeko alderdi-sistema lau hanka dituen mahaia den.¹

Euskal eremuko alderdi sistemak erdal kategorietatik: hiritartasuna ardatz




Iturria: Egilea.

Oharrak:

- * Zuberoa, Lapurdi eta Nafarroa Beherera mugatzen den hauteskunderik ez dago Ipar Euskal Herrian. Egitura horretara gehien hurbiltzen direnak departamendu mailako hauteskundeak dira. Alde horretatik, Biarno eta Ipar Euskal Herriko hautetsiek osatzen dute Pirinio Atlantikoetako departamenduko Kontseilu Nagusia. Zenbait kasutan hautagaiak independenteak dira, ideologia jakin batekoak alderdi bateko militanteak baino gehiago. Hori dela eta, alderdi sistema irudikatzerakoan, independenteak alde batera utzi eta alderdi politikoak aipatzen ditut.
- ** EAJren kasuan, bere hautagaiek ez zuten lortu ordezkariarik.

Kontakizun modernista horrek hiru funtzio ditu: bat, eztabaida nazio-estatuaren koordinatuetan kokatzea; bi, nazio politikoaren ideiarene atzean ezkutatzea espainiar nazionalismoa; eta hiru, alderdi periferikoen kategoriaren azpian alderdi nazionalista bakarrak euskal alderdiak direla azpimarratzea (kontsideratzen da beste alderdi periferikoak erregionalistak direla). Modu horretara, euskal lerrokatze linguistiko elektoralak hartzen duen zentzua da nazio-estatuaren aurkako erreakzioarena. Horren aurrean, irizpide berriak proposatzen ditut euskal alderdi sistema interpretatzeko, euskal pentsamendutik abiatuta.

Euskal alderdi sistema interpretatzeko proposamena: naziotasuna ardatz




Iturria: Egilea.

Eskema berri honen arabera, hiru hankako mahaia osatzen du euskal eremuan egituratzen den alderdi sistemak. Alde horretatik, mahai horren hankak honakoak dira: nazio euskalduna, frantziarra eta espainiarra. Hiru nazio horietatik erneko dira aipatutako alderdi sisteman parte hartzen duten alderdi guztiak, eta, ondorioz, *de facto*, denak dira nazionalistak. Ondorioz, nazio horien baitan ulertu behar dira lurraldetasunari dagozkion dibisioak eta gainerako dibisio sozialak.

Begirada berri horrek errotiko aldaketa proposatzen du euskal eremuan osatzen diren alderdi sistemak interpretatzeko orduan. NFEko alderdi sistemak, esaterako, bi hanka edukiko lituzke eta ez lau, espainiar kategorietatik irudikatzen den moduan. 2015eko foru hauteskundeak erreferentzia moduan hartuz gero, euskal alderdien blokean ez dago alderdi nazionalik. Azken horiek Geroa Bai eta EH Bildu koalizio erregionalen baitan aurkeztu ziren. Alderdi espainiarren kasuan, oso anitza da alderdi/koalizioen izaera. Bi dibisioren inguruan artikulatzen dira honako lau espaziotan: ezkerrekoak eta estatu mailakoak (Ahal Dugu, PSN); eskuindarrak eta estatu mailakoak (PP); ezkerrekoak baina estatu mailakoak ez direnak (I-E); eta eskuindarrak baina estatu mailakoak ez direnak (UPN). Frantziar alderdiei dagokienez, begi bistakoa da NFEen ez dutela ordezkaririk lortzen. Alabaina, hutsune hori komenigarria da aipatzea. Izan ere, erdal pentsamendua deseraiki nahi bada, modu integralean pentsatu behar da fenomenoak.

NFEko alderdi sistema 2015eko foru hauteskundeen ostean



Iturria: Egilea.

Espainiar/frantziar nazioaren eta euskal nazioaren arteko ezberdintasun nagusia hauxe da: aurreneko biek estatuaren monopolioa dute, baina euskal nazioa estatu gabeko nazioa da. Ondorioz, ezberdina da nazio horietatik erditzen diren alderdien izaera. Zentro-periferia gatazkaren inguruan antolatzen dira estatuaren monopolioa duten frantziar/espainiar nazioeko alderdiak. Zentroko alderdiak dira, adibidez, PP edota PSOE; aldiz, periferiakoak UPN edo bere garaian Unidad Alavesa. Euskal alderdien kasuan, aldiz, hiru dira alderdi nazionalista nazionalak: Sortu, EA eta EAJ. Gainerakoak alderdi/koalizio erregionalak dira (EH Bildu, EH Bai edo Geroa Bai). Azken horiek, euskal koalizio nazionalistak izan arren, euskal lurraldearen baitan eremu jakin batean aurkezten dira soilik.

Aurrera begira, perspektiba berri horrek eskatzen du euskal alderdi sistemaren historia berrirakurtzea. Euskal alderdien zuhaitz genealogikoari erreparatuz gero, EAJ da lehen euskal alderdia. Egia da historian zehar euskaldunak mugimendu politiko ezberdinen parte izan direla: batzuk, adibidez, karlistak izan ziren, besteak liberalak... Bi mugimendu horiek, ordea, erdal ardatzean artikulatzen ziren (Espainiako Estatuan). Aitzitik, kategoria horietatik kanpo gelditzen dira Iparraldeko euskaldunak. Horrek erakusten du, pentsamendu zatitzailerik bada, hori nazio politikoaren ideian oinarritzen den erdal pentsamendua dela, ez euskal nazionalismoa. Azken horrek batu egiten gaitu euskaldunak, erdal pentsamendu hegemonikoak bereizi. EAJren sorrerak XIX. mende amaieran Euskal Herri kulturala politikoki artikulatu zuen alderdi baten bueltan. 60ko hamarkadan, aurrena Ekinek eta ondoren ETAk euskal alternatiba nazionala indartzeko apustua egin zuten. Alabaina, azken horien ekarpena ez da arlo nazionalera soilik mugatzen. Ezker abertzalearen bigarren ekarpen historikoa da euskal nazioaren baitan dibisio soziala artikulatzea.


Behin hori garbi izanda, euskal nazioak bizi duen menderakuntza egoeraren arabera ulertu behar dira kontraesanak: bai ezker abertzalearen baitan gertatzen direnak (adibidez, nazio auziaren eta arlo sozialaren arteko harremana ulertzerakoan sortzen diren gorabeherak), bai EAJren baitan gertatzen direnak (euskal alderdi nazionalista izan arren, praktikan espainiar alderdi periferiko gisa jokatzeko duen joera).

Laburbilduz, azpialat honetan adierazi nahi nuena da muinean euskal alderdiak ez direla inoren aurkako erreakzioak. Ordezkatzen duten gizataldearen interesak defendatzen dituen antolakundeak dira. Batzuk ezkertiarak dira, besteak eskuindarrak. Baina guztiak dira nazionalistak. Begirada aldaketa horrek eskatzen du gizarteko dibisio sozialak hiritartasunaren logikatik irakurri beharrean naziotasunaren logikatik irakurtzea. Alegia, kontakizun modernistaren DNAn dagoen partikular/unibertsal dikotomiarekin haustea. Ez dago alderdi ‘ez nazionalistarik’. Gauzak horrela, hasieran formulatu den galderara itzuliz, honatx nik hobesten dudana erantzuna: euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren jatorrian dagoen auzia ez da zentro-periferia gatazka, nazio auzia baizik.

Lerrokatze linguistiko elektoralak euskal lurraldean: espainiarra, frantziarra eta euskalduna²

Perspektiba berriak aldarrikatzen du lerrokatze linguistiko elektoralen muinean nazio auzia dagoela. Demokrazia ordezkatzaileetan, bozkatzea da norbanakoaren adierazpide politiko gorena. Alde horretatik, lerrokatze linguistiko elektoralak funtsean adierazten duena da ia erabatekoa dela kulturak ekintza politiko horrengan duen eragina. Lerrokatze linguistiko elektoralak aipatzen direnean, normalean betikoak dira ikerketetan aztertzen diren kasuak: Belgika, Quebec, Katalunia, Euskal Herria... Alabaina, zergatik ez dira akademian aztertzen Espainia edota Frantzia? Hain zuzen ere, estatu horietako emaitza elektoralek erakusten dutelako espainiar/frantziar nazioa soilik politikoa delako kontakizuna gezurra dela.


Lerrokatze linguistiko elektoralak Madrilen eta Parisen



Ikusten den bezala, bai Parisen eta bai Madrilan hautesleek gaztelaniaz/frantsesez dakite eta alderdi espainiarrei/frantziarrei bozkatzen diete. Biak ala biak, lerrokatze linguistiko elektoralen tipo idealak dira. Akademiak, ordea, ez du nahi fenomeno hori


argitara ateratzea. Are gehiago, berori ezkutatzeko asmoz, begirada desbideratzen du eta, estatua duten nazioak aztertu beharrean, estatu gabeko nazioen hutsune eta kontraesanak aztertzea lehenesten du. Lan honetan, aurrena eurek ezkutatu nahi duten hori aztertzen da. Alde horretatik, 2015eko Espainiako Diputatuen Kongresurako hauteskundeetan ikusten da espainiar jatorrikoak zirela Madrilgo Erkidegoan aurkeztu ziren alderdi politiko guztiak. Beste horrenbeste esan daiteke Parisen inguruan. Frantziar jatorrikoak ziren 2017ko Frantziako presidentetzarako hauteskundeetan bigarren itzulira pasatu ziren bi hautagaien alderdiak. Salbuespenak salbuespen, hautesle guztiak frantziar/espainiar hiztunak direla kontuan izanda, bi kasuetan perfektua da lerrokatze linguistiko elektoralak. Alabaina, zer gertatzen da lerrokatze linguistiko elektoral horiekin gizartea elebiduna bada eta beste jatorri nazional bateko alderdiak badaude alderdi sisteman? Honatx Hego Euskal Herriko adibidea.

Hizkuntza-gaitasunaren eta espainiar alderdiek jasotako babes elektoralaren arteko harremana Hego Euskal Herriko udalerrietan



Hego Euskal Herriko kasuan, datuek erakusten dute errealitatea konplexuagoa bihurtzen den arren, espainiar lerrokatze linguistiko elektoralak ez dela desagertzen. Tuteran eta bere inguruko herriak dira soilik Madrilgo ereduarekin alderatu daitezkeenak. Udalerririk horietan, euskara ezagutza oso baxua da eta euskal alderdiek lortzen duten babes elektoralak oso apala. Gainerako herrietan, gaztelania ezagutzak %100koa izaten jarraitzen badu ere, euskara ezagutzaren ehunekoa igo ahala behera egiten du alderdi espainiarrek jasotako babes elektoralak. Alde horretatik, gure ikerketarako, Orexa edota beste neurri batean Azpeitia bezalako kasuak dira interesgarriak. Udalerririk horietan hautesle (ia) guztiak euskal elebidunak dira eta oso txikia da alderdi espainiarrek lortzen duten babes elektoralak. Zer dago muturreko bi kasu (Tuteran eta Azpeitia) horien atzean?

Euskal boto abertzalearen bilakaera udalerrri bateko euskara transmisioaren eta etxeko euskara erabileraren arabera: Azpeitiko eta Tuterako kasuak



Irudiak bi gertaera uzten ditu agerian. Batetik, Hego Euskal Herrian gizartearen zati bat oraindik erdalduna izateak espainiar alderdiei soilik egiten diela mesede. Bestetik, hizkuntza transmisioa eta erabilera direla, eta ez hizkuntza-gaitasuna, lerrokatze linguistiko elektoralak eragiten dituzten aldagai garrantzitsuenak gizarte elebidunetan. Ondorioz, udalerrri bat euskara hutsez bizi bada, probabilitate handia egongo da euskal alderdiek erabateko babes elektoralak jasotzeko. Eta, alderantziz, udalerrria zenbat eta erdaldunagoa izan, aukera gehiago dago udalerrri horiek alderdi espainiarren indarguneak izateko.


Horiek dira joera orokorrak. Hortik aurrera, euskal lerrokatze linguistikoa sakonago ulertu nahi bada, kontuan izan behar da nazio minorizatua dela. Horrek gutxienez bi gauza esan nahi ditu: bat, euskaldunen kasuan hiritartasunak eta naziotasunak bat egiten ez dutenez, aintzat izatea desabantaila egoeratik abiatzen dela; eta bi, gogoan izatea euskaldun osoak eta Orexako errealtatea salbuespenak direla Hego Euskal Herrian. Azurmendik dioten moduan, euskaldunen gehiengoa gaur-gaurkoz erdizka da euskaldun. Hamaika adibide daude. Euskotar asko dago ez dakiena euskaraz, edo, alderantziz, euskal etniakoa den zenbaitek ez dute kontzientzia nazionalik. Espainiar nazioaren kasuan, egoera oso eroso da. Izan ere, gaur-gaurkoz ez dago kontzientzia espainiarra duen eta gaztelaniarik ez dakien hauteslerik, ez estatuan ezta Hego Euskal Herrian ere. Beste horrenbeste gertatzen da Ipar Euskal Herrian frantziar nazioarekin.

Hori da euskal nazioari ezarri dioten kondena. Politikoki euskal kontzientzia ahula edukitzeaz gain, kulturalki euskaldunen artean hizkuntza nazionalak egoera minorizatua izatea. Mende luzez bizi izan duen menderakuntzak eragin du euskal nazioa dagoen egoeran egotea.

Euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren kasua: nazio gutxitu izateak dituen ondorioak

Nazio gutxitu izateak bere ondorioak ditu. Horietako bat da euskal lerrokatze linguistiko elektorala sendoagoa izatea ezkerreko euskal alderdien kasuan (EH Bildu) eskuinekoen kasuan baino (EAJ). Fenomeno hori ongien Bizkaian islatzen da.


Etxeko euskara erabileraren eta euskal alderdiek jasotzen duten babes elektoralaren arteko lotura Bizkaiko udalerrietan



Lan honetan ez naiz sartuko joera horien xehetasunak aztertzen. Bakarrik adierazi nahi dudana da Madrilen hizkuntzak ez duela determinatzen hautesle batek ezker/eskuin bozkatzea. Han (ia) guztiak dira espainiar hiztunak, espainiarrak eta alderdi espainiarren boto-emaileak. Beraz, ezin da esan euren botoa ezkertiar edo eskuindarra izatea gatzelania erabilerak baldintzatzen duenik. Bizkaiko kasuan, ikusten da euskal alderdi ezkertiarrei ia ezinezko egiten zaiela euskara erabilerak baxua duten udalerrietan babes elektorala lortzea. Aldiz, EAJk udalerrri euskaldunetan bezain emaitza onak lortzen ditu udalerrri horietan. Hortik galdera asko sortzen dira: EAJk jasotako boto horietatik zenbat dira euskal nazionalista ez diren hautesleek emandakoak? Zenbat dira euskotar ez euskal hiztunenak? Zein da euskotar horiek hizkuntzari aitortzen dioten funtzioa euskalduntasunean? Zergatik EH Bildu ez ditu ezkertiar erdal hiztunen botoak lortzen Barakaldon? Galdera horiek guztiak erantzuteak lan honen helburuetatik ihes egiten du. Soilik esango dudana da galdera horiek euskal pentsamendutik erantzuteko ezinbestekoa dela begirada kulturalki zapalduta dagoen nazioaren perspektiban ezartzea.

Euskal nazioa menpeko egoeran egoteak udalerrri euskaldunetan ere eragina du. Nafarroako kasuan, adibidez, UPN bezalako alderdiek historikoki gaitasuna izan dute nazionalismo etnikoaren logikatik euskaldun askoren botoa bereganatzeko. Fenomeno hori Gipuzkoan eta Bizkaian ez da horren ohikoa. Nafarroako udalerrri euskaldunetako joera horiek euskal pentsamendutik aztertzeke, ezinbestekoa da gaiari kontzientzia politikoa falta duten euskaldunen perspektibatik begiratzea.

2001ean etxeko euskara erabilera %90 baino handiagoa zuten udalerrietan euskal alderdiek lortutako babes elektoralaren batezbestekoa: lurraldearen eta hauteskundearen arabera



Laburbilduz, euskararen eta boto abertzalearen arteko lotura aztertuz, ikusi da asimilazioaren ondorio dela nazioaren gaineko dikotomia etnikoa/politikoa. Nazioa natural erreproduzitzen den lekuetan ez dago kultura eta politikaren artean pitzadurarik, eta horregatik gertatzen dira lerrokatze linguistiko elektoral perfektuak nazio hegemonikoetan. Horregatik da ezinbestekoa euskal komunitatearen baitan gelditzen diren 'komunikazio espazio' aske horiek zaintzea. Espazio horien balioa ez da azken indioen erreserba izatea, asimilatu gabeko azken eremuak izatea baizik. Euskaldun komunitateak espazio horiek trinkotu beharko ditu eta pentsamenduz erdal periferia izateari utzi baldin eta etorkizuna izan nahi badu.

Etorkizuneko erronka: nola legitimatu euskal pentsamendua?

Azurmendiren ideien ur-jauzia izan da azken hamarkadetan euskal pentsamenduaren baitan emari handienetakoa izan duena. Bere lanetan erdal pentsamendu hegemonikoaren marko teorikoa deseraikitzen du eta, bide batez, euskal pentsamendutik eraikitzeko zimenduak jartzen ditu.

Joxe Azurmendi Kongresuak erakutsi duen moduan, ur-jauzi horren ziprizek diziplina ezberdinetako hainbat ikerketa busti dituzte, tartean euskararen eta boto abertzalearen inguruan egiten ari naizen doktorego-tesia. Azurmendiren testuek norabidea markatzen dute; alabaina, euskal ikertzaileei dagokie pentsamendu hori ikerlerro ezberdinetan garatzea. Asmo hori praktikara eramatea, ordea, ez da hasiera batean eman dezakeen bezain erraza. Bidean hainbat galdera sortzen dira. Nola garatu euskal pentsamendua? Nola legitimatu hortik sortzen den ezagutza? Nola egin dute hori guztia gure aurrekoek? Aizpuruk modu honetara laburtzen du 56ko belaunaldiaren jarduna:

«Arrazoimenaren eredu desberdin batetik abiatuta, legitimazioa arrazoizkotasun eta objektibotasun bezainbat subjektu konprometitu kokatuaren esperientziaren egian oinarritu dute. (Aizpuru 2019: 26)

Aizpuruak aipatzen duen begirada horretatik heldu beharko diogu etorkizunari. Izan ere, oraindik osatu gabe dagoen proiektua izaten jarraitzen du Azurmendik aipatzen duen «Ernazimendu euskarazkoak».

56ko belaunaldiak ia hutsetik abiatu behar izan zuen. Ondorengo urteetan, beren premia eta beharren arabera erantzuna eman zien garaiko galderei. Orain, ondorengo belaunaldiari dagokio lekukoa hartzea. Orduan bezala, orain ere egongo da txikikeriatan gabiltzala esango duenik. Alegia, nola litekeen euskal pentsamenduz (arazo partikularrez) kezkatu munduan arazo garrantzitsuagoak daudenean (unibertsalak). Nonbait, ahaztu egiten zaie euren arazo unibertsal horiek ere jatorri partikularra dutela. Azurmendik (2017: 20) dioen moduan, «pertsonek aldeko defentsa eta borroka bada, unibertsala» ere badelako, jarrai dezagun XXI. mendeko arazoak eta borroak euskaratik eta euskaraz pentsatzen.

Oharrak

1. Beste horrenbeste gertatzen da NFEko alderdi sistemarekin. CISEk argitaratutako liburuetan azpimarratzen da NFEko alderdi sistema bi dibisio horien arabera egituratzen dela: ezker/eskuina eta zentro/periferia (ikus Gómez *et al.* 2019, Lagares *et al.* 2019). NFEko alderdi sistema marrazterakoan, ordea, kontraesanak bistaratzen dira kontakizun modernistaren baitan. Bereziki adierazgarria da UPN alderdiarekin gertatzen dena. Honako bidegurutzean aurkitzen dira ikertzaileak: UPN alderdi nazionalistak dauden blokean kokatu behar da alderdi periferikoa delako? Edo, nahiz eta alderdi periferikoa izan, estatu mailako alderdiekin sailkatu behar da? Dударik ez dago UPNk antzekotasun handiagoa duela PPrekin Geroa Bairekin baino. Alabaina, nola justifikatu alderdi sisteman lekualdatze hori, euren irizpideekin talka egiten badu? Horren aurrean, honakoa asmatu dute: UPN 'periferiaren periferia' da. Ikusten den moduan, bere zepoan erortzen da espainiar pentsamendua.
2. Honako hauek dira lanean zehar agertzen diren grafikoak osatzeko erabili diren datu iturriak. *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* iturri ofizialek lortu dira Hego Euskal Herriko udalerrietako datu soziolinguistikoak. Grafikoetan agertzen da datu soziolinguistikoak 2016koak direla. Hala ere, komeni da honakoa kontuan izatea. Nafarroaren kasuan, tauletan agertzen diren udalerrri mailako hizkuntza transmisioaren eta etxeko erabileraren datuak 2001ekoak dira (nik dakidala, horiek dira udalerrri mailan argitaratu dituzten azken datuak); aldiz, hizkuntza-gaitasunaren datuak 2011koak (oker ez banago, datu berrienak horiek dira). EAERI dagokionez, 2016koak dira hizkuntza-gaitasunaren, lehen hizkuntzaren eta etxeko euskara erabileraren datuak. Bestalde, Madril eta Parisko datu soziolinguistikoak ez dira iturri ofizialek lortuak. Espainian, esaterako, hiritarrak legez 'behartuta' daude hizkuntza nazionala ezagutzera. Beraz, hortik ondorioztatu da hautesleen $\approx 100\%$ ezagutzen duela hizkuntza nazionala. Parisko kasuarekin beste horrenbeste egin da. Horregatik jarri diogu \approx ikurra aurretik. Datu elektoralak, aldiz, Nafarroako Estatistika Erakundearen eta EAeko Segurtasun Sailaren webguneetatik lortu dira. EAeko kasuan, 2016ko Eusko Jaurlaritzarako hauteskundeetako datuak erabili dira grafikoak osatzeko; NFEko kasuan, aldiz, 2015eko Nafarroako Legebiltzarrerako hauteskundeetako datuak. Hautagai-zerrendek lortutako botoen arabera kalkulatu dira euskal alderdiek jasotako babes elektoralaren ehunekoak.

Bibliografia

- Aizpuru, Alaitz (2015): 'Baginen eta bagara nor', JAKIN 208, 13-24.
— (2019): 'Txillardegi, postmodernitatea eta postmodernismoa', JAKIN 232, 11-31.
Azurmendi, Joxe (1976): *Zer dugu Orixeren kontra*, Jakin, Tolosa.
— (1977): *Zer dugu Orixeren alde*, Jakin, Tolosa.
— (2000 [1992]): *Espainolak eta euskaldunak*, Donostia, Elkarlanean. 9. arg.
— (2017): *Hizkuntza, nazioa, estatua*, Donostia, Elkar.
— (2018): *Beltzak, juduak eta beste euskaldun batzuk*, Donostia, Elkar.
Garate, Gotzon (1972): *Marx eta nazioa*, Bilbo, Mensajero.
Garmendia, Haritz; Urteaga, Eguzki (2019): 'Iparra galdu gabe! Euskal alderdi-sistema ez da espainiar estatuko azpi-sistema elektoral bat', in Askoren artean: III. *Ikergazte. Nazioarteko ikerketa euskaraz*, Baiona, UEU, 44-50.
Gómez, Braulio; Cabeza, Laura; Alonso, Sonia (2019): *En busca del poder territorial. Cuatro décadas de elecciones autonómicas en España*, Madril, CIS.
Intxausti, Joseba (1990): *Euskara, euskaldunon hizkuntza*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.
Iztueta, Ibai (2015): *Euskal Kultura vs Cultura Vasca*, Donostia, Utriusque Vasconiae.
Iztueta, Paulo (2000): *Euskal irakaskuntza autonomi aroan (1983-1994)*, Donostia, Utriusque Vasconiae.
Lagares, Nieves; Ortega, Carmen; Oñate, Pablo (argk.) (2019): *Las elecciones autonómicas de 2015 y 2016*, Madril, CIS.
Lipset, Seymour M.; Rokkan, Stein (1967): 'Cleavage Structures, Party Systems, and Voter Alignments: An Introduction', in Seymour M. Lipset eta Stein Rokkan (argk.): *Party Systems and Voter Alignments*, New York, Free Press, 1-64.
Llera, Francisco J. (arg.) (2016): *Las elecciones autonómicas en el País Vasco: 1980-2012*, Madril, CIS.

JAKIN

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus